



ehbildu

Arrasate.

#zurekin

#Contigo



LAUBIDE

Sei proposameneko proiektua Arrasateko bizi-kalitatearen alde
Un proyecto con seis propuestas para una mayor calidad de vida





Espazio publikoaren antolaketak guztiz baldintzatzen du herri baten bizi-kalitatea eta Arrasatek badauka zer hobetua arlo horretan. Laubide proiektuaren bitartez, gaur egun daukagun hirigintza eredua birpentsatzeko eta eraldatzeko planteamendua egiten dugu, udal gobernuak Garibairako aurreikusi duen obra lana abiapuntu gisa hartuz. Sei proposamen zehatz, Arrasaten bizitzea geroz eta eroso, garbi, seguru eta osasungarriagoa izan dadin.

El ordenamiento del espacio público condiciona la calidad de vida de un municipio y Arrasate puede mejorar mucho en ese aspecto. Tomando como punto de partida las obras previstas por el gobierno municipal para la zona de Garibai, presentamos como alternativa el proyecto Laubide, seis propuestas concretas en favor de una Arrasate urbanísticamente más amable y segura, así como más limpia y saludable.

Zer dela eta **Laubide** proiektua?

Arrasateko hirigintza eredua zaharkitua geratu da. Iraganeko mugikortasun beharrei eta planteamendu sozioekonomikoei erantzuten die eta horren adibide dugu Garibai etorbidearen ingurua. Herriko beste zonalde batzuetan bezalaxe, ibilgailuek nagusitasuna bereganatu dute oinezkoen kaltetan, zarata, kutsadura zein arriskua areagotuz, ondorioz. Herritarrak erdigunean jarriko dituen hirigintza eredu berri bat behar dugu Arrasaten eta horren aldeko apustua da Laubide proiektua. Udal gobernuak Garibai etorbiderako aurreikusi duen Ekobulebarrak ez bezala, Arrasaten bizitzea atseginagoa eta jasangarriagoa izateko hamaika onura dakartzan proposamen integrala.

¿Con qué fin presentamos el proyecto **Laubide**?

El modelo urbanístico de Arrasate ha quedado obsoleto. Responde a esquemas de movilidad del siglo XX y un buen ejemplo de ello es el entorno de Garibai, donde la circulación de tráfico rodado tiene preferencia frente a la de viandantes, generando, en consecuencia, altos niveles de polución, contaminación acústica y riesgo. Arrasate urge de un modelo de urbanismo que priorice el bienestar de las personas y el proyecto de Ecobulevar previsto por el gobierno municipal apenas avanza en ese sentido. De ahí que presentemos como alternativa Laubide, un proyecto de mejora con numerosas ventajas frente al plan gubernamental.

LAUBIDE PROIEKTUA
| Sei proposamen

Zergatik orain?

Udal gobernuak Garibai etorbidea urbanizatzeko dituen asmoek (Ekobulebar proiektua) ez diete erantzungo ez Arrasateko bizikaltatea hobetzeko beharrari, ez Udalaren egoera sozioekonomikoari.

Alde batetik, PNV-PSOE gobernu sozioek Udala zorpetuko duen inbertsioa aurreikusi dute 2021erako eta, une honetan, irtenbide errazik ez daukan krisialdi batean murgilduta gaudela, administrazioari zuhurtzia handiagoz jokatzeari dagokio, diru publikoaren erabilera kontrolatuz eta herritarren oinarritzko beharrak asetzeko bideratzeari lehentasuna emanez.

Bestalde, ikuspegi urbanistiko batetik, Ekobulebarrak antzinako hirigintza eredu bati jarraitzen dio eta bere hartan aurrera eramango balitz Arrasate atsegina eta energetikoki iraunkorrago bat eraikitzeak aukera paregabea galduko genuke.

Horregatik, Ekobulebarraren egitasmoa geratzeko eskatu diogu eta eskatzen diogu Udal gobernuari, Arrasaterentzat ikuspegi ekonomiko zein sozial batetik jasagarriagoa litzatekeen obra bat gauzatu ahal izateko. Arrasateko EH Bildu prest dago lanketa horretan udal gobernuarekin lankidetzan aritzeko.

Esan gabe doa herritar eta eragile sozioekonomikoen ekarpenak ere gustura jasoko ditugula, benetan uste baitugu gure planteamendua denon artean aberastu dezakegula. *Laubide* proiektuak zuzenean eragiten dien bizilagunekin hainbat bilera egin dugu dagoeneko, baina arrasatear guztien iritzia batu nahi genituzke. Zurea emateko arrasate@ehbildu.eus helbidea erabili dezakezu.



¿Por qué ahora?

El proyecto contemplado por el gobierno municipal para Garibai (Ecobulevar) no mejora de manera significativa la calidad de vida de Arrasate ni responde a la realidad y necesidades del municipio. Entendemos que en medio de una crisis como la actual, cuyas consecuencias sociales y económicas nadie es capaz de prever, endeudar al Consistorio para llevar a cabo una obra de asfalto millonaria es como poco irresponsable.

Además, desde una perspectiva urbanística, perderíamos una ocasión irreparable para hacer de Arrasate una localidad acorde al siglo XXI, más confortable para sus habitantes, más atractiva como núcleo socioeconómico y más sostenible en cuanto a gasto energético.

De ahí que reiteremos nuestra petición a los partidos del gobierno local, PNV y PSOE, para que reconsideren sus planes para la zona de Garibai, al tiempo que les mostramos nuestra disposición para colaborar con ellos en esa tarea, ya que aún estamos a tiempo de elaborar un nuevo plan de actuación, más acorde a las prioridades de Arrasate y sus gentes. En la misma línea, también nuestro proyecto *Laubide* está abierto a las aportaciones de toda persona interesada. Hasta el momento, hemos hecho una serie de reuniones con aquellas que se verían afectadas directamente por el proyecto. Sin embargo, nos gustaría recabar la opinión de más arrasatearras, para lo cual ponemos a vuestra disposición nuestro correo electrónico: arrasate@ehbildu.eus



LAUBIDE proiektuaren onurak:

- Oinez eta bizikletaz ibiltzeko espazio gehiago.
- Automobilen eta autobusen joan-etorri orekatua.
- Zarata eta aire-kutsadura gutxiago.
- Autobus geltoki estalia.
- Bidegorri sare integrala.
- Berdegune eta aisialdirako gune berriak.
- Erdialdeko ehun sozioekonomikoa sustatu.
- Ekonomikoki jasangarria.

Ventajas del proyecto LAUBIDE:

- Más espacio para desplazarse a pie y en bicicleta.
- Tráfico de coches y autobuses más equilibrado.
- Menos contaminación acústica y atmosférica.
- Estación de autobuses cubierta.
- Red de bidegorri integral.
- Nuevos espacios verdes y de ocio.
- Impulso del tejido socioeconómico del centro.
- Económicamente sostenible.



1. Garibai-Biteri, motordun zirkulazio gabeko esparru

a) Oinezkoentzat + Bidegorria: Laubide egitasmoarekin Garibai etorbidea oinezkoentzat eta bizikletentzat izango litzateke oso-osorik, bidegorri berri bati esker. Baita Garibaitik Zaldibarrera doan Biteri hiribidea ere. Horrela, bide batez, Zaldibar parkea handitu eta hobetu dezakegu.

b) Espazio publiko ludiko eta segurua: Motordun ibilgailurik gabe, aisialdi librerako zein kirol edota kultur ekimenak antolatzeko espazio paregabea irabaziko genuke Garibai eta Biteri eremuetan.

c) Iturbide egoitza berdeagoa: Iturbide parean bertako egoiliarrentzako aire libreko berdegune duin bat egitea proposatzen dugu, horretarako espazio nahikoa geratuko baita libre.



Garibai-Biteri, zona libre de tráfico motorizado

a) Peatonal+Bidegorri: A través del proyecto Laubide, proponemos que la avenida Garibai sea zona exclusiva de peatones y ciclistas. También la Avenida Biteri que une Garibai con Zaldibar. De este modo, podemos ampliar y mejorar el parque de Zaldibar.

b) Espacio público lúdico y seguro: Ganaríamos un nuevo espacio para pasear u organizar actividades lúdicas, culturales y deportivas.

c) Residencia Iturbide: Posibilitaría la creación de una zona verde más amplia y digna al aire libre frente a la residencia Iturbide.



Estación de autobuses cubierta

Proponemos crear una estación de autobuses en condiciones en la plaza Jose Maria Arizmendi. Sería un espacio cubierto que podría acoger también otros servicios como puestos de venta, máquinas de billetes, cafetería... además de reducir la contaminación en la zona y hacer más cómodo y atractivo el uso del transporte público.

2.

Autobus geltoki estalia

Jose Maria Arizmendi plaza autobus geltoki estalia egitea planteatzen dugu. Autobus ilarekin bukatuko genuke, kutsadura zein zarata gutxituz, eta garraio publikoa erabiltzea askoz erosoago izango litzateke. Geltokiak beste zerbitzu batzuk ere eskaini ditzake. Kafetegia, salmenta postuak, txartelak erosi/kargatzeko makinak...

Nafarroa etorbidea, seguruagoa

3.

a) Erreia bakarra. Trafikoak norazko bakarra izango luke Nafarroa etorbidean, Aretxabaletarantz. Eta Bidegorria ere izango luke.

b) Oinezkoentzat seguruagoa. Dena ondo, urte gutxi barru, ehunka herritarren eta, batez ere, haurren bilgune izango dira etorbide horretan eraikitzen ari diren Kulturola eta Juan Arzamendi Musika Etxea. Trafikoa erreia bakarrekoa izanez gero, autoen fluxua asko jaitsiko litzateke eta, beraz, arriskua ere bai. Abiadura murriztea ere planteatzen dugu, gehienez 20 km/orduko.



Nafarroa etorbidea, mucho más segura

a) Carril único. Dispondría de un único carril en dirección Aretxabaleta y de un bidegorri.

b) Seguridad peatones. En pocos años, cuando entren en funcionamiento las actividades de Kulturola y Juan Arzamendi Musika Eskola, Nafarroa Etorbidea será punto de entrada y salida para cientos de personas, en su mayoría menores. Si convertimos dicha avenida en vía con un único carril, se reduciría considerablemente el flujo de tráfico en la zona, ganando en seguridad. En ese mismo sentido, proponemos que la velocidad máxima permitida sea de 20km/h.

4.

Zerrajera kalea, norabide bakarra

Trafikorako erreia bakarra izango luke, norabide bakarrekoa, Bergararantz. Gehienezko abiadura 20km/orduko izango litzateke hemen ere. Bidegorria ere izango luke kale horrek.

Zerrajera kalea, dirección única

Proponemos que la Zerrajera kalea sea de dirección única, hacia Bergara, y conste de un bidegorri. También aquí la velocidad máxima permitida sería de 20 km/h.



5.

Grupo San Juan

Se mantendrían las plazas de aparcamiento y se acometería la obra de saneamiento en toda la zona residencial.

**Grupo San Juan**

Laubide egitasmoari esker aparkalekuak mantendu egingo lirateke eta etxalde osoaren saneamendua eta antolaketa berritu.

6.

Bidegorri sare globala

Laubideri esker, herriko bidegorrien sarea osotuko genuke, gaur egun han eta hemen dauden zatiak (espaloï edota errepideekin partekatzen direnak zein jada osotuta daudenak) lotzeko aukera ematen baitu.

**Red de bidegorris global**

Además, dentro del proyecto Laubide, Arrasate contaría por fin con una red de bidegorris integral, entrelazando tramos ya completados con aquellos que se compartirían con peatones y/o coches.



LAUBIDE PROIEKTUA

Sei proposamen



www.laubide.eus

ehbildu
ARRASATE